

ERREFUXIATUAK ETA ASILO POLITIKOA JARDUNALDIAK IHESLARIAK, IRAGAITZAZKO BIZITZAK

ERMUA 2014
Abenduak 2 - 13



Egitaraua

Abenduak 2 asteartea

HITZALDIA: "BELDURRIK GABE BIZI"

Nazioarteko babesa, genero arrazoiengatik jasandako jazarpeneraen aurrean.

Hizlaria: C. Alejandra Sepúlveda, CEAR-EUSKADI-ren psikologoa

19:00 - Lobianon

Abenduak 4 osteguna

ZINE-klubA: "LA BUENA MENTIRA", Philippe Falardeau-rena

Bukaeran zine-forum-a egongo da CEAR Euskadi -ren kideekin

20:30 - Ermua Antzokian



Abenduak 9tik 13ra

ERAKUSKETA: "EMAKUMEEN ARTEAN SAREAK EHUNTZEN"

Okupazio israeldarraren eragina emakume palestinarren bizitzan, UNRWA Euskadi-rena

Lobianon Ordutegia: Goizez: 11:00etatik 13:00etara

Arratsaldez: 18:00 etatik 20:00etara

Larunbata: 12:00etatik 14:00etara

Abenduak 9 asteartea

ERAKUSKETAREN AURKEZPENA + LUNCH

Beatriz de Lucas-en eskutik, UNRWA-ko kidea

Arratsaldeko 7etan Lobianon

Antolatzaileak

Herri Saharaiaren Lagunen Elkartea "Hagunia"
Eguarbitza Misio Taldea
Komite Internazionalistak
Caritas
Urko-Punta
Maishule
ASER Asociación de Senegaleses de Ermua
PAACE Ermuko afrikarren elkartea

Laguntzaileak

Mudo-Drogot
UNRWA Euskadi
CEAR Euskadi



Babeslea



Ayuntamiento de Ermua
Ermuko Udala



ERREFUXIATUAK ETA ASILO POLITIKOA JARDUNALDIAK

IHESLARIAK, IRAGAITZAZKO BIZITZAK

Lurralde atzeritarretan jazarpenetik ihesi dabiltzan pertsonen asiloa ematea zibilizazioaren lehen mugarrietako bat izan arren (duela 3.500 urteko testuetan erreferentziak aurkitu izan dira), asiloaren nazioarteko babesaren muina 1951eko Iheslarien Estatutuari buruzko Genevako Ituna da, Bigarren Mundu Gerraren amaierako errealitateari aurre egiteko sortua, etxera itzultzeko zain zeuden milaka pertsona zeudela-eta.

Genevako Itunak eta 1957ko New Yorkeko Protokoloak honela definitzen dute iheslaria: Arraza, erlijio, herritartasun arrazoiak direla-eta, gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik edo iritzi politiko jakinak izateagatik jazarria izateko oinarrituriko beldurra izanda bere herrialdetik kanpo dagoen pertsona, ezin diona -edo aipatu beldurra dela-eta ez diona nahi- herrialde hartako babesari heldu.

Lekualdaturiko pertsonen eta iheslarien kopurua mailarik altuenera iritsi da Bigarren Mundu Gerratik. 2014ko ekainean argitaraturiko Iheslarietako Nazio Batuen Goi Komisioaren (ACNUR) txostenak adierazten du 33,3 milioi lekualdatu daudela munduan, eta 16,7 milioi iheslari, 2012an baino 2,5 milioi gehiago. NBERen arabera, ez da egon halako hazkuntzarik 1994tik, alegia, Balkanetako gerretatik eta Ruandako genozidiotik.

Datu horiek aditzera ematen dute milioika lagunak irudika ezin ditugun etsaitasunezko testuinguru bortitz baino bortitzagoetan bizirauten dutela. Horren arrazoiak ez dira soilik gerrak eta gatazka armatuak, nahiz eta horiek izan, zalantza barik, lekualdatu eta iheslari gehien eragiten dituztenak.

SIRIA

Siria, historikoki afganistandarrek, irakiarrek edo somaliarrek hartu izan dituen harrera-herrialdea, azken bost urteotan iheslari-kopuru handieneko bigarren herrialdea bihurtu da. 2013. urtearen bukaeran, 2,4 milioi iheslaritik gora siriarrak ziren.

Benetan, Siriako errealitateak indarkeria-egoerak bizi dituzten munduko beste leku askotan gertatzen dena islatzen du. Biztanleria, aurrena, lekuz aldatzen da, bere herrialdeko mugen barruan -barne-lekualdaketa-. Egoera eutsiezina bilakatzen denean, herrialdetik ihes egiten dute, askotan berehala itzultzeko aukerarik gabe.

ACNUR-ren arabera, gutxienez iheslarien % 50ek badaramatza gutxienez bost urte beste herrialde batean. "Luzaroko babes" deritzona da.

- **KAREN ETNIAKO BIRMANIARRAK**, 20 urte iheslarien esparruetan Tailandiarekin mugan.
- **BIZTANLERIA AFGANISTANDARRA**, gutxienez 2,5 milioi iheslari Pakistanen aterpetuta 80ko hamarkadatik.
- **PALESTINA**, miloika iheslari 1948ko okupazio israeldarraren ondorioz
- **SAHARAR HERRIA**, Marokoren okupaziotik ihesean, populazioaren erdia baino gehiagok Aljeriako hammadan aterpea du
- Eta 2013an munduan atzemandako 31 gatazketako askoz ere gehiago.



Mundua gero eta konplexuagoa da, eta, arauak formalizazio-prozesu bat behar izan arren, eta ez eztabaidarik gabea, asiloa eskatzeko aitorturiko arrazoi berriak aipa ditzakegu:

- Ingurumenaren narriadura
- Genero eta sexu-orientazio arrazoiaren ondoriozko jazarpena



INGURUMEN-IHESLARIAK

Munduan, milioika lagunek egiten dute ihes uholdeen, goseteen edo beste ingurumen-hondamendi batzuen ondorioz. Gerretatik ihes egiten duten pertsonen kasuan bezala, haien ihesaldiaren ezinbesteko izaera eta, halaber, beste leku batean bizitzeko laguntza material eta baimenezkoaren beharra nabarmentzen dira.

Polemika mahai gainean dago: **pertsona horiek, “ingurumen” etorkinak, iheslari gisa sailkatu behar dira ofizialki, nazioarteko babes-maila bera jasotzeko aukerarekin?**

Eztabaida hori migrazio globalen mundu gero eta konplexuagoan gertatzen ari da; izan ere, milioika lagun abiatzen baitira egunero hainbat faktore militar, politikoa, sozial, ekonomiko eta ingurumenezkoren ondorioz.

Londresko *New Economics Foundation* programaren zuzendari Andrew Simmsen iritziz,

“jazarpen” berba aplikatu beharko litzaieke bai definizio ofizialen arabera jazarpen politikoa edo beste motaren batekoa jasaten dutenei, bai

“aurretiko ohartarazpenik gabe uholdeak pairatzen dituzten edo txikituta gera daitezkeen lurraldeetan gero eta pobrezia handiagoan bizitzera behartuta” daudenei.

Planetaren klima-aldaketa hedatua nagusiki nazio boteretsuen “erabaki ekonomiko eta politikoen” eragin badute ere -ondorio kaltegarrien gaineko erabateko ezagutza izanda aplikaturiko politikek-, herrialde pobreek egin behar diete aurre sortzen apenas lagundu duten arazoari”.

Iturria: Iheslariak Aldizkaria, ACNUR.

Emakumeak dira babesa bilatzera eta lekualdaketara behartzen duten arrazoen biktima nagusiak. Baina, horrez gain, modu berezian jasaten dute beren eskubideen urraketa.

GENERO-ARRAZOIEEN ONDORIOZKO JAZARPENA

Emakume ugari pertsonen salerosketan jarduten duten mafiek harrapatzen dituzte, emakumeok genero-jazarpenetatik ihes egiten ari direla, esaterako, familia barneko indarkeriatik, behartutako ezkontzetatik edo mozketa genital femeninotik; edo, bestela, gerra eta indarkeria orokortuko testuinguruetatik ihes egiten ari direnean, non beren gorputzak borroka-eremu gisa erabiltzen diren.

CHARLOTTE

(Kongoko Errepublikak Demokratikoa)

2000. urtean atera nintzen nire herrialdetik. Ruandarrak etxean sartu, senarra hil eta alaba zaharrena nire aurrean bortxatu zuten. Une hartan, seme-alabekin ezkutatzera joan nintzen. Eskubideak dituen herrialde baten bila nabil, asiloaren Europa, giza eskubideen Europa.

Bidea luzea eta latza da. Kongo Brazzaville, Kamerun, Nigeria, Benin, Mali, Aljeria eta Maroko zeharkatu ditut.

Orbainez josita nago, deserturako nire deportazioetakoak, bidekoak, bortxaketa guztietakoak.

Marokon nagoenetik, hiru aldiz deportatu naute. Mugan derrigorrezkoa da poliziekin oheratzea. Mugako bortxaketa horien ondorioz, berriz geratu nintzen haurdun, eta haurdunaldia eteteko modua bilatu dut.

Ez naiz polizia marokoar edo aljeriarraren emaztea! Emakume askea izan nahi dut! Bila iezaguzue lasai egon ahal izateko leku bat!

Genero-arrazoen ondoriozko jazarpenetatik asilo-eskaera egiteko arrazoiak:

- Feminizidioa, emakumeen eta feminizaturiko gorputzen kontrako indarkeria-forma muturrekoena.
- Mozketa genital femeninoa
- Behartutako ezkontza
- Emakumeen salerosketa, sexu-ustiapena xede
- LGTTBI kolektiboaren kontrako jazarpena

Beldurrik gabe bizitzea. Asiloaren babesa genero-arrazoen ondoriozko jazarpenaren aurrean CEAR-Euskadi, 2013.



**ACNUR-rek aitorturiko
iheslarien erdiak baino
gehiago hiriguneetan
bizi dira.**



IHESLARIAK HIRIGUNEETAN

Iheslarien inguruko irudi ikonikoa karpa zuriz jositako ilarak eta ilarak dira, larrialdiko kanpamendu gero eta handiagoan. Baina errealitatea da munduko iheslarien 16,7 milioien heren bat besterik ez dela bizi orain kanpamenduetan. Munduko populazioaren erdia bezala, iheslariak hiri eta herrietara joan dira, 50eko hamarkadatik bizkortu egin den joera.

Etorkizunean, gero eta iheslari gehiago saiatuko dira hiri eta herrietan bizirauten, beren jatorrizko herrialdeetara itzultzen diren iheslari ohiak eta beren herrialdeen barruan lekualdaturikoak bezala.

Milaka lagunek egunero jarduten dute duintasunaren aldeko borrokan. Beren usteak askatasunez adierazteko duintasuna; beren sexu-

aukerak askatasunez bizitzeko duintasuna eta beste batzuek ere egin ahal izateko duintasuna; lurraldea eta bertako baliabide naturalak babesteko duintasuna; emakumeak izateko eta emakume gisa defendatzeko duintasuna; gatazka armatuaren erdian biktima-eragileak salatzekeo duintasun arriskatua; duintasuna, finean, eskubideak edukitzeko eskubidea defendatzeko.

Behartutako lekualdaketara, babesera... derrigortzen duten arrazoiak erazteko lan egin beharra dago, eta, bitartean, premiazkoa da arauak eta legeak hedatzea, itunak eta akordioak, Nazioarteko Komunitatetik inguratzen gaituen eta pobrezia, lekualdaketak eta pertsona eta herrien irteera masiboak eragiten dituen errealitate konplexuari aurre egiteko egiten eta babesten direnak.

BAZENEKIEN...

Ia 50 milioi behartutako lekualdatu daude munduan

- 16,7 milioi lagun iheslariak dira
- 33,3 milioi lagun beren herrialdeen mugen barruan lekualdatuta bizi dira
- Ia milioi bat lagun beren asilo-eskaera ebazteko zain daude
- 3,3 milioi lagun herrigabeak dira

Espainiak EBko herrialdeetan jasotako asilo-eskaeren % 1,03 baino ez zuen artatu, eta % 0,4 onartu.



ASILO-ESKAERAK EUSKAL HERRIAN 2013an



BIZKAIA 50
ARABA 4
GIPUZKOA 8
NAFARROA 3